



Aste honetan Busanen, Hego Korean, egiten ari diren gailurra gobernu arteko batzordearen bosgarren eta azken saioa da. Batzorde hori 2022an eratu zuten Nazio Batuek, legean eragina izanzen nazioarteko tresna bat garatzeko mandatuarekin eta 2040. urterako plastikoen kutsadura gelditzeko konpromisoa hartuta.

Astelehenean hasi zen eta bihar amaituko da gailurra. 175 herrialdetako ordezkariak eta 600 bat erakunde behatzaile daude elkartuta bertan, nazioarteko hitzarmen bat adostu nahian, helburu handikoa, polimero sintetikoen produkzioari buruzko eztabaidetan fokua jarrita.

Ingurumenean eta, beraz, gure osasunean kutsadura honek duen inpaktua murriztea da asmoa. Herrialde batzuek

BUSANGO GAILURRA

Ia 70 herrialdek babestu dute plastiko kutsadura murrizteko munduko ituna

📁 **INGURUMENA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Plastikoa gutxitzeko Nazio Batuetako gailurra egiten ari dira asteon. Hego Korean, Busanen daude bilduta astelehenetik 175 herrialdetako ordezkariak eta 600 erakunde behatzaile, legean eragina izanzen duen itun baten bila. Talde horretako 67 herrialdek babestu dute hitzarmena, 2040rako kutsadura honekin bukatzeko.

sektorea gehiago arautzea nahi dute; bertzeek, ordea, industria petrokimikoari egiten diote men.

AUKERA BAT

«Benetako aukera bat dugu zerbait egiteko, eta espero dugu hau abiapuntu anbiziotsu bat izatea plastikoen arazoa mundu mailan arautzeko»,

erran zuen Nazio Batuen Ingurugiro Programako zuzendari exekutiboak, Inger Andersenek, bilkura abiatu zenean.

Hiru puntu zehaztu zituen, Busanen askatu beharreko hiru korapilo: plastikoetan dauden konposatu kimiko batzuk identifikatzea, gizakion osasunerako kaltegarri izan daitezkeenak; plastikoen ekoizpen

eta kontsumo jasangarri bat lortzea; eta finantza mekanismo bat sortzea plastikoen hondakinen arazoa kontrolatzeko, epe luzerako nazioarteko ahaleginak babesteko.

Kazetariak bigarren puntua betetzeko dauden zailtasunez galdetu ziotenean, plastiko batzuen nazioarteko ekoizpena kontrolatzeko erronkaz, alegia, kontu konplexua zela onartu zuen Andersenek, eta negoziazioen ahalegina lehen puntuan zentratzea proposatu zuen, dagoeneko badagoen adostasunean aitzinera egiten saiatzeko.

KOSMETIKOETAN, FARDELETAN...

«Badakigu gure edertasun produktuetan nahi ez ditugun osagaiak daudela, jan behar ditugun elikagaietatik hurbil, haurtxoen fardeletan... Has gaitezen hortik eta ezar dezagun prozesu bat identifikatzeko, zerrenda batean sartzeko eta horrela hobeki kontrolatzeko», planteatu zuen Nazio Batuen Ingurugiro Programako zuzendari exekutiboak.

«Ez dut uste negoziazioak errazak izanen direnik, baina argi dago herritarrek arazo hau konpondu nahi dutela, eta baita politikariek ere», baieztatu zuen. Bere ustez, konplexutasunak ez du exigentzia maila jaistea eta baliorik edo erranahirik gabeko akordio bat adostea ekarri behar.

Batzordeko presidentea ere, Luis Vayas ekuadortarra, baikor mintzatu zen, planeta eta gure osasuna zaintzeko eta etorkizun jasangarriago bat bermatzeko «benetako aldaketa» bat ekarriko duen akordio bat lortzeko itxaropentsu.

Nabarmendu zuenez, presa gehienez heldu beharreko ingurugiro krisi globaletako bat da plastikoena. Izan ere, ozea-

Busango gailurreko bi irudi, plastikoen kutsadura murrizteko akordio global bat babesten duen Inger Andersen Nazio Batuen Ingurugiro Programako zuzendari exekutiboak partekatuak.
@andersen_inger

noetako kutsadura osoaren %80a iristen da, eta hondakin horien zortzi eta hamar milioi tona metriko artean isurtzen dira ozeanoetara urtero.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen arabera, bi hamarkada hauetan izugarri gehitu dira plastiko hondakinak (2,3 aldiz biderkatu dira), 2019an 353 milioi tonatara iritsi arte. %9 baino ez ziren birziklatu. %69 erraustegietara edo araututako zabortegietara joan ziren, eta %22 inongo kontrolik gabe bota edo erre ziren.

Kalkulatzen da plastikoen ekoizpenak berotegi efektuko gasen isurketen %5 dakarrela mundu mailan. 2050erako kopuru hori bikoiztu egingen dela uste dute. NBERen estimazioek diotenez, 19-23 milioi tona plastiko isurtzen dira urtero ur ekosistemetara.

Gainera, plastikoen ekoizpe-
nak 2.500 milioi dolarreko fi-
nantza-zama dakar urtean
munduko ekonomiarentzat,
ekosistemetan eta gure osasu-
nean duen inpaktuagatik. Va-
yasek azaldu zuen Busanen bi-
latzen den itunak ez duela
soilik gure osasuna eta plane-
tarena zaintzea xede izanen,
baizik eta garapen ekonomiko
jasangarria eta plastikoaren
industriaren berrikuntza sus-
tatzea ere bai.

GKE-EN ESKAERA

GKE den plataforma batek mundu osoko hiru milioi per-
tsonak sinatutako eskaera bat
bidali zien gailurreko partai-
deei, «legalki eragina izanen
duen hitzarmen global bat es-
katuz, plastikoen erabilera
eta ekoizpena erabat murriz-
teko eta, hala, gure eta ingu-
rumenaren osasuna babeste-
ko». Greenpeace, Naturaren
aldeko Munduko Funtsa

(WWF) eta Break Free From
Plastic gobernuz kanpoko
erakundeak daude eskaera
horren atzean, bertze antola-
kunde batzuen artean.

«Plastikoen mundu mailako
krisiari buelta emateko» gal-
degin zieten gobernuei, baita
«hitzarmenean neurri gakoak
ez jasotzeko eta edukia urar-
dotzeko edozein saiakera baz-
tertzeko» ere.

67 HERRIALDEREN ADIERAZPENA

Hain zuzen ere, Busango go-
bernu arteko batzorde honeta-
ko 67 herrialdek 2040rako
plastikoen kutsadurarekin bu-
katzea helburu duen itun glo-
bal bat babestu dute. Europa-
ko Batasuneko estatu kideak,
Ruanda, Erresuma Batua, Me-
xiko, Costa Rica, Panama, Ko-
lombia, Ekuador, Peru, Txile,
Uruguai, Nigeria, Gabon, Japo-
nia, Hego Korea eta Australia
daude tartean, horietako anitz

**Ruanda eta Norvegia buru dituen Anbizio
Handiko Koalizioak (HAC, ingelesez) osasuna
kaltetu dezaketen produktu kimikoak
kontrolatzeko neurri zehatzak eskatzen ditu**

**Saudi Arabia eta Errusia bultzatzaile dituzten
bertze herrialde batzuek, ordea, legean
eraginen duen edozein itun murriztaileren
aurka egiten dute, industria kimikoak bezala**

plastikoen ekoizle eta kontsu-
mitzaile handiak.

Busanen aurkeztu duten
adierazpenean, «ingurume-
nean eta gure osasunean plas-
tikoen kutsadurak eragindako
ondorio larrietatik babesteko
partekatzen duten anbizioa
berretsi», eta «legean eragina
izanen duen nazioarteko tres-
na bat garatzea» galdetu dute.

Aurreko lau saioretako nego-
ziazioetan ez dute akordiorik
lortu arautzearen aldeko he-

rrialde hauen eta bertzeen ar-
tean, plastikoen alde egiten
duten herrialdeen arteko
desadostasunak direla-eta. Bi-
garren talde honen sortzailea
eta burua Saudi Arabia da.
Errusia, Iran, Barein, Txina,
Brasil, India eta Kuba ere hor
kokatzen dira.

Lehenbiziko taldekoek oina-
rrizko polimeroen ekoizpena
mugatzea bilatzen dute. Erabi-
lera bakarreko ia plastiko guz-
tiak petrolioaren osagai horre-
kin fabrikatzen dira. Bigarren
herrialde taldeak, ordea, nazio
bakoitzak plastikoen hondaki-
nen kudeaketa eta birziklope-
na egin dezala planteatzen du,
eta aipatutako polimero ho-
riek azken adierazpenetik kan-
po utzi nahi ditu.

Bihar bukatuko da gailurra,
eta orduan jakinen dugu ea
plastikoen kutsadura gelditze-
ko aurreneko munduko ituna
adosteko gai izan ote diren.

